

## HELBURUAK BETETZEA: AURREKONTU-EGONKORTASUNA ETA FINANTZA IRAUNKORTASUNA (2017)

Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko Lege Organikoak (AEFILO) arautzen ditu administrazio publikoen alderdi horiek, eta azken xedapenetatik hirugarrenean ezarri du Euskal Autonomia Erkidegoari aplikatuko zaiola, hargatik eragotzi gabe Ekonomia Itunaren Legeak ezarritakoa. Beste alde batetik, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onartzen duen maiatzaren 23ko 12/2002 Legeak 48. artikuluko 3. apartatuan aurreikusi du Estatuarekiko koordinazioa eta lankidetzaren aurrekontu-egonkortasunaren alorrean. Lege beraren 62. artikulua ezarri duenez, Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoaren funtzioen artean dago koordinazio- eta lankidetzaren konpromisoak hitzartzea aurrekontu-egonkortasunaren alorrean.

2016ko abenduaren 20an, Estatuko Administrazioak eta Euskal Autonomia Erkidegoak 2017ko ekitaldirako helburuak hitzartu zituzten aurrekontu-egonkortasunari eta zor publikoari dagokienez.

AEFILOren 17. artikulua aurreikusitakoa kontuan hartuta, aurrekontu-egonkortasunaren eta zor publikoaren alorreko helburuen betetze-mailari buruzko txosten bat prestatu du Ogasun eta Administrazio Publikoen Ministerioak 2018ko urrian. Txosten horren arabera, EAEk bete egin ditu aurrekontu-egonkortasunaren eta zor publikoaren alorreko helburuak, 2017ko ekitaldikoak, ondoren erakusten den bezala.

Eskualde-BPGd-aren %	
<u>AURREKONTU-EGONKORTASUNA</u>	
Aurrekontu-egonkortasunaren helburua	-% 0,6
Superabita	% 1,49
<u>FINANTZA IRAUNKORTASUNA</u>	
Zor publikoaren alorreko helburua	% 14,4
Zor Publikoa	% 14,1